

## 2015eko RAMON Y CAJAL DOKTOREGO ONDOKO LAGUNTZEN DEIALDIA

*MINECOk 175 laguntza deitu ditu I+G zentroetan ibilbide nabarmena duten Estatuko eta atzerriko ikertzaileak hartzea sustatzeko.*

### **Laguntzen ezaugarriak:**

Guztira 175 laguntza deitu dira, eta horietatik 3 % 50eko ezgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak kontratatzeko gordeko dira. Gainera, 40.000 euroko laguntza gehigarri bat emango zaio onuradun bakoitzari ikerketa jarduera gauzatzearekin zerikusi zuzena duten gastuak ordaintzeko.

### **Kontratuen ezaugarriak:**

Kontratuen iraupena gehienez 5 urtekoa izango da. UPV/EHUra sartzen diren onuradunek 31.600 euro gordin jasoko dituzte urtean.

### **Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:**

- a. Doktore gradua edukitzea honako data hauetan (lortutako lehenengo titulua):

EGOERA:	EPEA
Sartzeko epe orokorra	2005/01/01etik 2012/12/31ra bitartean
Amatasun edo aitatasun aldietako etenak	Epe orokorra urtebete zabalduko da 2005/01/01etik 2016/01/20ra bitartean jaiotako seme-alaba bakoitzeko
Eskatzailearen gaixotasun larria edo istripua	Justifikatutako baja-aldia adina zabalduko da, eta gorantz biribilduko da hilabetea osatu arte.
Mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzea (gutxienez 3 hilabetez)	Justifikatutako aldia adina zabalduko da, eta gorantz biribilduko da hilabetea osatu arte.
Ezgaitasunen bat duten pertsonentzako epea	2002/01/01etik 2010/12/31ra bitartean

- b. Aurreko Ramón y Cajal deialdietako laguntza bat jasotakoa ez izatea.
- c. Juan de la Cierva laguntza baten edo doktorego ondoko prestakuntzarako laguntza baten onuraduna ez izatea, gutxienez urtebetean jaso dutenen kasuan izan ezik; aldi hau zentroan sartu eta 2016/06/01era bitartean zenbatuko da.
- d. **GARRANTZITSUA:** Ikertzaileek gutxienez 24 hilabeteko egonaldia egiaztatu behar dute UPV/EHU ez diren I+G zentroetan, azkenean hor sartuko balira.

**Eskaerak aurkezteko epea:**

**Abenduaren 10etik 2016ko urtarrilaren 20ko 15:00ak arte.**

**GARRANTZITSUA:**

Ikertzaileena izango da eskaera epe barruan eta behar bezala aurkezteko ardura. Ikertzaileek aurkeztutako eskaerek **ez** dute UPV/EHUko legezko ordezkariaren onarpena beharko.

**Ikertzaileek eskaera aurkeztea:**

Eskaera bere aldetik egingo dute ikertzaileek eta I+G zentroek. Hortaz, eskatzaileek honako urrats hauek eman beharko dituzte:

1. Eskatzaileen Erregistro Bateratuko (RUS) "Ikertzailearen Erregistroa" atalean inskribatuko dira: <https://sede.micinn.gob.es/rus/>.
2. Eskaera formularioa beteko dute honako aplikazioan: <https://sede.micinn.gob.es/ryc/>.
3. Eskaera erregistratuko dute deialdiaren 24.2.b.3 artikuluan deskribatutako prozeduretakoren bat jarraituz.

MINECOren webgunean eskura dagoen **ohiko galderen zerrenda** kontsultatzea gomendatzen da:

<http://www.idi.mineco.gob.es/portal/site/MICINN/menuitem.dbc68b34d11ccb5d52ffe801432ea0/?vgnnextoid=68f8d9ac3f761510VgnVCM100001d04140aRCRD>

**UPV/EHUK eskainiko dituen plazak hautatzea:**

UPV/EHUK plaza kopuru mugatua eskainiko du deialdi honetan. Ramón y Cajal ikertzaile bat hartzeko interesa duten ikertzaileek Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean eskura dagoen "Interes adierazpena" formularioa bidali beharko dute [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus) helbidera **2016ko urtarrilaren 12a, asteartea, baino lehen**. Egun horretatik aurrera jasotzen diren eskaerak **ez** ditu ebaluatuko GIBBk.

**GARRANTZITSUA:** Gomendatzen da Errektoreordetzaren webgunean eskura dagoen "Interes adierazpena aurkezteko jarraibideak" kontsultatzea.

**MINECOrekin harremanetan jartzeko:**

Eskaera egiten duten ikertzaileek jarraian adierazitako formularioaren bidez egingo dizkiote kontsultak MINECOri:

<http://www.idi.mineco.gob.es/portal/site/MICINN/menuitem.bdf7d463c0fe168affe67a10d14041a0/?vgnnextoid=717be8a86769c210VgnVCM100001a04140aRCRD&vgnextchannel=d9581f4368aef110VgnVCM100001034e20aRCRD>

**UPV/EHUrekin harremanetan jartzeko:**

UPV/EHUko taldeek "Interes adierazpena" aurkezteari buruzko galderak egiteko, eta zerbitzuaren kalitatea hobetzearren, honako helbide honetara jotzea gomendatzen da: [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus), posta elektronikoaren gailan "Ramón y Cajal" aipatuz.

**Informazio gehiago:**

[http://www.idi.mineco.gob.es/portal/site/MICINN/menuitem.dbc68b34d11c  
cbd5d52ffeb801432ea0/?vgnnextoid=68f8d9ac3f761510VgnVCM1000001d0414  
0aRCRD](http://www.idi.mineco.gob.es/portal/site/MICINN/menuitem.dbc68b34d11c cbd5d52ffeb801432ea0/?vgnnextoid=68f8d9ac3f761510VgnVCM1000001d04140aRCRD)